



PAISAJISMOKO ETA LANDA INGURUNEN GOI MAILAKO TEKNIKARIA

Goi Maila



IES Escuela Agraria Derio / Derio Nekazaritza Eskola BHI

Berreaga, 5 48160 Derio (Bizkaia)

Tel.:944 541 421

Fax. 944 540 162

derio@nekaderio.eus

© Creative Commons BY-SA





Konpetentzia orokorra

Titulu honen konpetentzia orokorra lorategien eta berdeguneen proiektuak garatzea eta landare-produkzioa eta nekazaritza-produkzioa kudeatzea da. Eginkizun horretan, lanak gainbegiratzea, erabilgarri dauden baliabide materialak eta giza baliabideak programatzea eta antolatzea, errentagarritasun ekonomikoko irizpideak aplikatzea eta ingurumenari, produkzio ekologikoari, mintegiko produkzioari, kalitate-kontrolari, elikagaien segurtasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzea.

Moduluak

| LANBIDE MODULUA | Ordu-esleipena | Kurtsoa |
|---|----------------|---------|
| 0690. Botanika agronomikoa | 99 | 1.a |
| 0691. Mintegiaren kudeaketa eta antolamendua | 198 | 1.a |
| 0692. Fitopatologia | 99 | 1.a |
| 0693. Nekazaritzako topografia | 99 | 1.a |
| 0694. Nekazaritzako eta basogintzako makineria eta instalazioak | 198 | 1.a |
| 0695. Laboreen plangintza | 165 | 1.a |
| 0696. Laboreen kudeaketa | 220 | 2.a |
| 0697. Lorategiak diseinatzea eta paisaia lehengoratzeta | 132 | 1.a |
| 0698. Lorategien eta kirol-soropilen kontserbazioa | 180 | 2.a |
| 0699. Paisajismoko eta landa-inguruneko proiektua | 50 | 2.a |
| E200. Ingeles teknikoa | 40 | 2.a |
| 0700. Laneko prestakuntza eta orientabidea | 100 | 2.a |
| 0701. Enpresa eta ekimen sortzailea | 60 | 2.a |
| 0702. Lantokiko prestakuntza | 360 | 2.a |
| Zikloa guztira | 2.000 | |

(*) Saio teoriko eta praktikoak

Familiako modulo amankomunak: 690, 692, 693, 694

Erdi Mailako Zikloetako modulo amankomunak: E 200, 818, 819



Lanbide-ingurunea:

Lanbide-irudi honek parkeak eta lorategiak instalatzeko, lehengoratzeko eta mantentzeko lanetan, paisaia lehengoratzeko lanetan, nekazaritza-produkzio konbentzionalean edo ekologikoan eta mintegiko hazi eta landareen produkzioan diharduten enpresa handi, ertain eta txiki publiko zein pribatuen kudeaketa-arloan egiten du lan, besteren kontura zein bere kontura. Halaber, gaitasuna du tratamendu pestizidak indarreko araudiak arautzen duen jardueraren arabera antolatzeke, kontrolatzeko eta egiteko.

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Lorezaintzako teknikaria.
- Proiektu bat idazterik eskatzen ez duten lorategi-eremuen diseinatzailea.
- Hiriko eta hiri inguruko parkeak, lorategiak eta jolas-eremuak instalatzeko lanen arduraduna.
- Lorategiak eta parkeak (hiriko eta hiri inguruko jolas-eremuak eta natura-ingurunea) mantentzeko, kontserbatzeko eta lehengoratzeko lanen arduraduna.
- Lorezaintzako eta paisaia lehengoratzeko enpresako bere konturako langilea.
- Lorezaintzako eta paisaia lehengoratzeko obren arduraduna.
- Inausketen eta zuhaitz-kirurgiako eragiketen arduraduna.
- Nekazaritzako arduraduna edo langileburua.
- Nekazaritza-produkzio konbentzionalaren zein ekologikoaren kudeatzailea, bere kontura edo besteren kontura.
- Nekazaritzako biltegiaren arduraduna.
- Lurreko tratamenduetako tresneriaren arduraduna.
- Baratze, mintegi eta lorategien nekazaritzako arduraduna edo langileburua, oro har.
- Mintegi konbentzionalen zein ekologikoen arduraduna, oro har.
- Landareak mintegian ugaltzeko lanen arduraduna.
- Landareak mintegian hazteko lanen arduraduna.
- Haziak eta fruituak altueran biltzeko lanen arduraduna.
- Haziak eta zotalak ekoizteko lanen arduraduna.
- Landareak, zotalak eta/edo haziak igortzeko biltegiaren arduraduna.

Ziklo honen Oinarrizko Curriculum Diseinuaren informazio osagarria Koalifikazioen eta lanbide heziketaren Euskal Institutuaren webgunean kontsultatu daiteke:

[OCD Paisajismoko eta Landa Inguruneko Goi Mailako Teknikaria](#)¹ (pdf 1,30 MB.)

Informazio gehigarria: www.nekaderio.eus

¹ http://www.kei-ivac.com/upload/productos/eusk/361/dcb_tec._sup._paisajismo-eu.pdf